

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

34. zenbakia**Data 2003-02-20****3131 orria**

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

TOLOSAKO UDALA

Pertsona heldu autonomoak familian hartzeko udal ordenantza. Behin betiko onespena.

Iragarkia

2002ko abenduaren 4an jendaurrena jarri zen adineko pertsona autonomoen familia-harrerako udal Ordenantza.

Epea amaitu ondoren ez da alegaziorik aurkeztu. Beraz, behin betikoa onartu da.

Ordenantza honen edukia hau da:

Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentua

2001eko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei gizarte zerbitzuen arloan dagozkien eginkizunak zehazten ditu, beti ere 1996ko urriaren 18ko 5/1996 Legeak, gizarte zerbitzuei buruzkoak, zehaztutako eskumenak erabiliz.

Gauzak horrela, eskumenen banaketa berriaren ondorioz, eta harrera familiei dagokienez, araututako prozedura egokitu egin behar da adineko pertsona autonomoen zaintzara moldatzeko.

Horren guztiaren arabera,

XEDATU DUT

Artikulu bakarra.

Onestea Harrera Familien Programaren prozedura erregulatzaila, udal ordenantza honen eranskin gisa doana.

Azken xedapena.

Udal ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Hau guztia jendeak jakin dezan argitaratzen da.

Tolosa, 2003ko urtarilaren 30a.—Alkatea.

(585) (1477)

ERANSKINA

1.Programaren edukia:

Harrera Familien programa ondorengoan datza: Familiek, bikoteek edo bakarrik bizi diren pertsonak beren etxeetan beraiekin inolako ahaidetasunik ez duten adineko pertsonak hartzea eta familia batean ohikoak diren eta espero litezkeen maila eta kalitateko arreta eta zaintza eskaintzea. Horretarako, udal ordenantza honek, hain zuzen, arautzen ditu zer nolako laguntzak emango diren etxe partikular batean adineko pertsona autonomoak hartzeko eta zaintzeko gastuak ordaintzeko.

2. Programaren helburuak:

a)Adineko pertsona autonomoak bere gizarte ingurunean edukitzea eta arreta pertsonalizatuko zerbitzuaren bidez bere garapen sozio-kulturala sustatzea.

b)Dagoen zerbitzu eskaintza zabaltzea banakako eskaerei erantzuteko aukerak emanda.

c)Ahal den gehiena atzeratzea egoitzetan gogoz kontra sartzea, adinekoak bere ohiko bizi giroan jarrai dezan bultzatzea eta, ondorioz, instituzionalizazio prozesuetatik ihes egitea.

d)Beren familietan zaintzen dituzten pertsonen aldi baterako harrerak bultzatzea, harremanak hondatu ez daitezen.

e)Adinekoaren bizi kalitatea hobetzea eta behar duen zaintza eskaintzea.

3. Betebeharrak. Sartzeko baldintzak (*Salbuespenak albuespen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek baloratuko dute*) :

3.1. Adinekoaren betebeharrak:

—65 urte beteta edukitzea.

—Tolosakoa izatea edo Tolosan erroldatuta egotea, eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez.

—Indarrean dagoen balorazio eskalaren arabera, pertsona autonomoa izatea.

—Laugarren mailarainoko odoleko ahaidetasunik ez izatea, ezta bigarren mailarainoko ezkontza bidezko ahaidetasunik ere, hartuko duten etxeko inorekin.

3.2. Harrera familiaren betebeharrak:

a)Elkarbizitza unitatea osatzea.

Programa arautzen duen dekretuaren arabera, harrera familiatzat hartuko dira: Pertsona bakarrak, senar-emazteak edo ezkondu gabeko bikoteek edo odol edota ezkontza ahaidetasuneko zenbait kidek osatutakoa, baldin eta etxebizitza berean bizi badira.

b)Erreferentziako pertsonaren identifikazioa.

Harrera familian erreferentziako pertsona bat identifikatu beharko da, hau da, adineko pertsonaz gehien arduratuko dena. Pertsona horrek honako baldintza hauek beteko ditu:

—25 urte baino gehiago eta 65 bete gabe.

—Adineko pertsona autonomoa zaintzeko eragozpen fisiko edo psikikorik ez edukitzea, ezta gaixotasun infekzio-kutsakorrik ere.

—Adineko pertsona autonomoekin jarduteko gaitasuna eta aurretiko jarrera izatea.

—Zailtasun fisikoak, adimenekoak edo adinarekin lotutakoak dituzten pertsonak onartzeko gaitasuna izatea.

—Harreraren izan daitezkeen zailtasunak gainditzeko prestakuntza eta aholkularitza jasotzeko prest egotea.

—Erreferentziako pertsonak bere egitekoa betetzeko nahikoa denbora izatea.

c)Familia unitatearen egoera ekonomikoa.

Familiaren oinarrizko beharrei erantzuteko baliabide ekonomiko nahikoa izan behar du, eta gutxieneko diru sarrera gisa ezarriko dira indarrean dagoen Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarreraren jasotzen direnak.

d)Familia unitateko gainerako kideen jarrera.

Familia pertsona batek baino gehiagok osatzen badute, guztien onarpena beharko da harrerarako, eta etxean hartzen denarekiko jarrera positiboa eta laguntzekoa erakutsi beharko dute, bere historia, izateko modu eta ohiturekin onartuz.

3.3. Etxebizitzaren betebeharrak:

Harrera familiaren etxean ezingo dira bi lagun baino gehiago hartu.

Harrera familiak edozein tituluko etxebizitza, prekarioan izan ezik, eduki beharko du, eman nahi zaion erabilerarako egokietua eta prestatua, honako baldintza hauekin:

—Nahikoa leku izatea familia bera eta hartutako adinekoa/ak eroso bizitzeko.

—Hartutako pertsonarentzat bakarrik izango den logela bat izatea.

—Irispide erraza duen hiri edo landa zonalde batean egotea.

—Higiene eta osasun baldintzez hornituta egotea: Ura, argia, berokuntza eta bainugela.

—Hartutako pertsona ondo moldatzeko eragozpen edo oztopo arkitektoniko eta trabarik ez izatea, eta laguntza teknikoak erabiltzeko aukera izatea.

4. Titularren betebeharrak:

a) Harrera familiaren betebeharrak:

—Adineko pertsonari behar duen laguntza eta zaintza eskaintzea.

—Helbide aldaketaren berri ematea.

—Familia elkarbizitzan gertatutako gorabehera edo gabezien berri ematea Udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuei.

—Familiari hartutakoaren eta harrera familiaren artean ondasun dohaintza edo erosketak egin aurretik, kasuaz arduratzen den Udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuari jakinaraztea.

—Familiari hartutakoarekin sinatutako kontratuaren baldintzak onartu eta betetzea.

b) Familiari hartutakoaren betebeharrak:

—Diru sarreretan izandako aldaketen berri ematea, gertatzen den unean bertan.

—Udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuei familia elkarbizitzan gertatutako gorabehera edo gabezien berri ematea.

—Elkarbizitzako ohitura, ordutegi eta gainerako alderdietara egokitzea; bere higiena zaintzea; etxea, altzariak, etab. behar bezala erabiltzea eta familiako kide guztiak errespetoz tratatzea.

—Hartzaileekin sinatutako kontratuaren baldintzak onartu eta betetzea.

5. Eskabideak izapidetzeko prozedura:

5.1. Eskaera bilketa:

Programan interesaturik dauden pertsonak, adineko autonomoak nahiz hartzaileak izan daitezkeen familiak izan, Udaletako Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute. Eta han, etxebizitza partikularretan borondatezko harrerarako eskabideak tramitatu eta horren inguruko informazioa eta orientazioa emango dituzte.

5.2. Harrera familien hautaketa:

Udaletako oinarritzko Gizarte Zerbitzuek harrera eskatu duten adinekoak zaintzeko egokitzen jo dituzten harrera familiak hautatuko dituzte. Horretarako, laguntza eskainiko dien zerbitzu tekniko bat izango dute.

Egokitasunaren deklarazioa harrera familia, adineko pertsona autonomo eta/edo harrera konkretuari buruzkoa izango da, eta txosten teknikoak eman ondoren egingo da.

Aipaturiko txosten tekniko horien arabera harrera familiak edota harrera eskatzaileak egokiak ez direla irizten bada, eskabidea atzera botako da behin betiko.

Txosten teknikoen arabera ikusten bada kasu jakin horretarako ez dela egokia, baina beste harrera batzuetarako egokia izan daitekeela, eskabideak itxaron zerrendara pasako dira.

5.3. Adineko pertsona autonomoak hartzeko eskearen eta proposamenen balorazioa:

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak harremanetan jarriko ditu harrerako bi alderdiak, hain zuzen, izaera pertsonal, linguistiko, sozial eta kulturalen artean oreka eta integrazioa bermatzen ahaleginak eginez.

Harreman horretan programak ezarritako baldintzak eta alderdi bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak azalduko dira; era berean, harrerako kontratu pribatuan jaso nahiko lituzketen baldintza partikularrak ere jasoko dira, bien artean adostuta.

Herri honetan familia hartzaileak ez badago eta beste herriren bateko familietara jotzen bada, hartuko duten pertsona adinduaren errolda aldaketak ez dio harrera eskubideetan galerarik ekarriko, hau da, Tolosan biziko balitz bezala tratatuko

da.

5.4. Eskabidearen bidalketa:

Adineko pertsonaren eta familiaren eskabideen espedienteak Udaleko oinarritzko Gizarte Zerbitzuek izapidetuko dute, interesatuek sinatutako inprimaki arautuetan, dagokien txosten tekniko eta eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera.

5.5. Ebazpenaren jakinarazpena:

Espedienteak aztertu ondoren, aldeko edo aurkako ebazpena Udalak jakinarazi egingo du, emandako diru laguntza zehaztuz, hala dagokionean.

6. Jarraipena:

Udaleko oinarritzko Gizarte Zerbitzua arduratuko da jarraipen eta kontrolaz, bai harreraren baldintzena bai gertatutako aldaketena.

Kasu guztietan Udaleko oinarritzko Gizarte Zerbitzuak urtero txosten pertsonalizatua egingo du, harreraren bilakaera azaltzeko era orokorrean.

Era berean, gorabehera administratiboen banakako parte egingo du, diru laguntza kontrolatzeko. Parte hori urtero edo harreraren egoeran aldaketaren bat gertatzen denean egingo da. Harreraren iraupena eta jaso beharreko diru laguntzak jarraipen horren baldintzapean daude.

7. Harrera gastuen gehieneko zenbatekoak:

Urtero, Gobernu Batzordeak, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak proposatuta, erabakiko du etxebizitza partikularrean adineko pertsona autonomoa hartu eta zaintzeko gastuei aurre egiteko laguntzen gehieneko zenbatekoa, Tolosako Udalaren eta familian hartutako adinekoaren artean ordaintzeko.

8. Udalaren diru laguntzaren zenbatekoa:

Harreraren gastuei aurre egiteko Tolosako Udalak ordainduko duen diru laguntzaren zenbatekoa honako bi atal hauen arteko diferentzia izango da: Batetik, urtero ezartzen diren gehieneko zenbatekoak eta, bestetik, familian hartutako pertsonaren urteko diru sarreraren %75a.

Familian hartutakoak hilean gutxienez lanbidearteko gutxienezko soldaren %50a bere esku izan beharko du.

Familian hartutakoak ospitalera eramanez gero, han dagoen bitartean diru laguntza jasotzen jarraituko du, Udaleko oinarritzko Gizarte Zerbitzuek bestelakorik ez dioten bitartean eta, gehienez ere, hiru hilabetez.

Harrera familiak jasotako zenbatekoa %30era murriztuko da tokia gordetzeko eskubidearekin familian hartutako pertsona 7 egunetik gora etxetik kanpo baldin badago eta egoera horrek, gehienez ere, 2 hilabetez dirauen bitartean. Kasu horretan, Udalak aitortua dion diru laguntzaren zenbatekoa ere proportzio berean murriztuko da.

Familian hartutakoak beste gizarte baliabideren bat jasotzen badu, etxebizitza partikularreko harrera eta zaintza gastuetan izan dezakeen eragina baloratu ahal izango du Tolosako Udalak, eta horren arabera, diru laguntza aldatu.

Harrera familiak adinekoarekin sinatuta zuen kontratua ezinbesteko arrazoiengatik aldi baterako eteten badu, diru laguntzaren ordainketa ere etenda geldituko da.

Familian hartutakoaren eta harrera familiaren artean lehenengoaren ondasunen dohaintza edo salerosketa gertatzen bada, Tolosako Udalak egoki irizitako neurriak hartuko ditu emandako diru laguntzaren gainean eta ordaindutako zenbatekoak itzuli beharrari dagokionez.

9. Diru laguntzaren ordainketa:

Diru laguntza zuzenean programaren onuradunari ordainduko zaio, berak adierazitako kontu korrontean transferentzia eginez. Ordainketa hilabetearen buruan egingo da.

10. Hilabete osoko egonaldia ez denean diru laguntza kalkulatzeko modua:

Diru laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, dagokion hileko kopurutik abiatuko da. Zenbateko hori oinarritzat hartuz, egun bakoitzari dagokiona aterako da aurreko zenbatekoa bider 12 hilabete eginez, eta horren emaitza 365 egunen artean zatituz. Hortik ateratzen dena hilabete horretan familian egondako egun kopuruarekin biderkatuko da eta horrek emango du hilabete

horretako diru laguntzaren zenbatekoa.

11. Harreraren iraungipena:

Harrera iraungi egingo da ondorengo arrazoiren bat tarteko denean:

—Harrera kontratua bukatutzat ematea.

—Familia uztea, hau da, haiekin ez bizitzea.

—Erreferentziako pertsonak ordenantza honetako 3.2.b. artikulua aipaturiko gaitasun fisiko, psikiko edota prestasunekoak galtzea.

—Familiako elkarbizitzaren hondamenak harrera modu egokian garatzea eragozten duenean.

—Ordenantza honetan jasotako betebeharretakoren bat ez betetzea.

12. Harrera familiek eskura dituzten gizarte zerbitzuetako baliabideak:

Harrera familiek bestelako baliabide edo prestazio sozialak eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta haiek eskuratzeko baldintzak betetzen badituzte. Edozein kasutan, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak balorazio txostena egin beharko du aldez aurretik.

Hau argitaratzen da apirilaren 2ko 7/85 Legearen arabera (Erregimen Lokalaren Oinarriak xedatzen dituen).

Interesatuek Ordenantza honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegian.